



ERDIPRESENTZIAZKOAK

1.ZER DA ZEHAZKI MODALITATE ERDIPRESENTZIALA?

Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialak zenbait hizkuntza eta mailatan eskaintzen duen irakaskuntza-mota da, garrantzi bereko bi zatiz osatua.

1. Alde batetik, aurrez aurreko saio bat: astean behin joango zara eskolara bi ordu eta laurdeneko eskola batera. Garrantzitsua: asistentzia nahitaezkoa da.
2. Bestalde, aurrez aurrekoa ez den saio bat. Plataforma birtual batean sartu beharko duzu, bertan hainbat material aurkituko dituzu, eta, modu autonomoan, zure irakasleak lantzea nahi duen hizkuntza-zereginak egingo dituzu.

Funtsezkoa da ulertzea egingo dituzun zereginetako asko gela birtualean hasi eta aurrez aurrekoan amaitzen direla (edo alderantziz). Hori horrela da zure ikaskuntza-ibilbidea konektatuta eta sekuentziatuta dagoelako. Ezinbestekoa da jakitea aurrez aurrekoa ez den saioari behar adina denbora ez emateak aurrez aurrekoari eragiten diola.

ZER EGITEN DA AURREZ AURREKO KLASEAN?

Bi ordu eta laurdeneko saio batera joango zara, eta bertan, banaka eta taldean, programazioan jasotako edukiak landuko dituzu eta hizkuntza-jarduerak egingo dituzu: hitz egingo duzu, ulermen-arietak egingo dituzu, zalantzak argituko dituzu, etab. Irakasleen gainbegiradapean egongo zara beti. Hori guztia ikuspegi komunikatiboarekin, beraz, aktiboki parte hartu beharko duzu. Eta eskola bakoitzaren amaieran, hurrengo saio ez-presentzialean egin beharreko lanei buruzko jarraibideak jasoko dituzu.

ZER EGITEN DA AURREZ AURREKOA EZ DEN SAIOAN?

Gela birtual batean sartuko zara zure erabiltzailearekin eta pasahitzarekin, eta irakasleek proposatutako lanak egin beharko dituzu, banakakoak zein lankidetzakoak. Uneoro izango dituzu eskura plataforman dauden materialak eta horiekin lan egiteko orientabideak. Gainera, hilean behin, gutxienez, online tutoretzetara joan ahal izango zara 30 minutuz, bideokonferentzia-sistema bidez, zure ahozko adierazpena eta binakako edo taldekako bitartekotza lantzeko. Argibide oso zehatzak emango zaizkizu ikasgelarako sarbideari buruz, bideokonferentziak egiteko moduari buruz, foro tematikoetan parte hartzeko moduari buruz edo zereginak egiteko moduari buruz. Online tutoretzak izan ezik, gainerako denbora modu autonomoan kudeatu ahal izango duzu zure helburuak lortzeko.

2.INTERESATZEN ZAIT. ZER GEHIAGO BEHAR DUT?

Ezinbestekoa da Internet konexio behar bezain ona izatea, webcam-a eta mikrofonoaz gainera. Tutoretza mugikorretik jarrai zenezakeen arren, ez dago aholkatuta; izan ere, baliteke saioan arbel birtualean maiz idatzi behar izatea.

Maiz sartu beharko duzu erabiltzen ikasiko duzun gela birtualera. Lehen eskola-egunetan, irakasleak gidatuko zaitu, edozein zalantza argituko dizu eta zure ikaskuntza-esperientzia arrakastaz osatzeko behar duzun guztia nola aurkitu erakutsiko dizu.

Gainera, baliteke ikasturtean zehar zenbait tresna digital erabili behar izatea bideoa eta audioa grabatzeko. Zure irakasleak azalduko dizu nola funtzionatzen duten.

3. ZEIN DA NIRE IKASTAROAREN PROGRAMA?

Programa aurrez aurreko ikastaroaren berbera izango da helburuei, edukien denbora-banaketari, ebaluazio motari eta materialei dagokienez. Testu-liburu batetik, halakorik balego, edo sailek egindako beste edozein material erabili ahal izango duzu, baita ariketa-koaderno ere, hizkuntza-jarduerak etxean lantzeko. Ebaluazio bat egingo zaizu eta zure aurrerapenari buruzko informazioa jasoko duzu, aurrez aurreko ikastaroetako ikasleen irizpide eta prozedura berberen arabera.

4. ARRAKASTA IZAN NAHI DUZU? HEMEN DITUZU AHOLKU TXIKI BATZUK

- Konpromisoa har ezazu: modalitate honen abantaila nagusietako bat zure denbora eta lan-bolumena zure beharren arabera antolatzeko malgutasun handiagoa izatea da: dela ziurtagiria lortzea, dela mailari eustea edo berreskuratzea. Autonomia handiagoa duzu, baina konpromiso handiagoa behar duzu.
- Erregularitasunez lan egin: funtsezkoa da, hasieratik, asteko lan-ordutegia ezartzea. Behar duzun denbora eman behar duzu eskola-ordutegitik kanpo. Ongi antolatu!
- Ohitu gela birtualean: ikasi zereginak eta materialak non dauden eta irakaslearekin komunikatzen. Zalantzarik baduzu, galdetu.
- Garaiz bidali eskatutako lanak!: emateko-data badute, kontzeptu batzuk zenbateraino barneratu dituzun eta, horrela, hobetu ahal izateko balio dutelako da.